

MAILOPE

ARAITZ | BETELU | LARRAUN | LEKUNBERRI

325 - 2024ko EKAINA



IRAGANEKO ETXEEK,
TINKO JARRAITZEN DUTE



MAILLOPE

- MAILLOPE DOAN BANATZEN DA HONAKO HERRIETAN: Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruiz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitzu eta Uztegi.

- ARGITARATZEN DU: Mailope Kultur Elkarte. L.G.: NA 719/93 Mailopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzi eta esanen erantzukizunik. issuu.com/mailopealdizkaria

- ERREDAKZIOA: Ainhoa Beraza, Aitor Irastorza, Arantxa Mikeo, Ane Ubegun, Irati Moreno, Mikel Hernandezena eta Xanti Begiristain.

- ARGAZKIAK: Haizea Goñi, Maddi Uharte, Inma Etxarri, Aitor Perez, Juan Antonio Garaikoetxea, Teresa Mariñelarena, Guratz Azpiroz, Ainhoa Beraza, Eneritz Urkola, Javier Irigoien, Garikoitz Goñi eta Asier Arsuaga.

- PUBLIZITATEA: Labrit Multimedia - 948 210 103 - mailope@labrit.net.

- MAKETAZIOA: Noé Lopez Albizu

- TIRADA: 1.600 ale.

Nafarroako Gobernuak, eskualdeko Udal, kontzeju eta bazkideek babestutako aldizkaria.

Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernua



AURKIBIDEA

02 ▶ ZUZEN ETA JATOR

04 ▶ KUXKUXEAN Zorion agurrak

07 ▶ MAITE DITUT MAITE Aralarko ibilbidea

08 ▶ ELKARRIZKETA Inma Etxarri, Belen Balenciaga, Javier Irigoien (Lekunberri)



12 ▶ BATZARRE

14 ▶ ERREPORTAJEA UEMAK "Egin nirekin ere euskaraz!" kanpaina abiatu du, aurreiritziei aurre egiteko



18 ▶ KULTURA

22 ▶ KIROLA Guratz Azpirotz (Uitzu)



31 ▶ AGENDA

ZUZEN ETA JATOR

Udan ***bidai** bat egingo dugu ala **bidaia** bat egingo dugu?

Hitz batzuek berezkoa dute amaieran a letra. A *itsatsia* dutela esaten da eta ezin diegu a hori kendu. Hona hemen sarritan entzuten diren forma oker batzuk:

- ▶ ***Anai zaharra** (> anaia zaharra).
- ▶ ***Hizkuntz bat** (> hizkuntza bat).
- ▶ ***Gauz asko** (> gauza asko).
- ▶ ***Bidai bat** (> bidaia bat).

Modu berean, ondorengo hitz hauek ere *a itsatsia dute*: animalia (eta ez ***animali**), pertsona (eta ez ***pertsón**), ordena, arrautza, baratza, ekonomia, eliza, familia, ideia, labana, polizia...

Hitz elkarketak egiten direnean ere bere osotasunean idatzi behar dira: hezkuntza-proiektu (eta ez

***hezkuntz proiektu**), arrautza frijitu (eta ez ***arrautz frijitu**).

Salbuespen honako sei hitz hauek dira: *burdina, eliza, hizkuntza, kultura, literatura eta natura*. Hitz hauek amaierako a gal dezakete hitz elkarketetan: bidai agentzia/bidaia-agentzia, kultur etxea/kultura-etxea...





Jare Elordi Azurmendi Ekainaren 4ean, 2 urtetxo betetzen ditu etxeko printzesak! Zorionak, Jare! Egun polita pasa! Muxu handi bat asko maite zaituzten familia guztiaren partez!



Zuriñe eta Goreti Estanga Jareño Goreti, ekainaren 16an 11 urte. Zuriñe, ekainak 30an 14 urte. Zorionak, neskak! Ongi ospatu zuen urtebetetze eguna, lagunak eta familiarekin. Asko maite zaituztegu!

Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago! Idatziezaguzu mailope@labrit.net e-postara hilaren 20a baino lehen.



Adur Goikoetxea Arévalo Ekainaren 27an, 10 urte. Zorionak, Adur! 10 urte jada! Ongi pasa zure egunean. Muxu handi bat etxekoaren partez!



Amalur Leoz Urbizu Ekainaren 16an 4 urte. Zorionak, Amalur!! Gozatu egunaz eta segi txoria bezain libre eta ameslari. Txokolatezko muxuak etxekoaren partez. Ilargiraino eta buelta maite zaitugu!

Betelu[®]
Euskal Herriko Ura
%100 PET birziklatua
Ur Mineral Naturala
www.betelu.com

BIDEGOXO JATETXEA
Jaunartzeak
Ezkontzak
Ospakizunak
Enpresa ekitaldiak
Usabal Kiroldegia
20400-TOLOSA 943 577 573
info@bidegoxo.com

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.
HIRUROK S. VETERINARIOS
Telefono zenbakia eta faxa:
948 50 43 31
Lekunberri

MALLOAK
ARTZAI GAZTAK
Garaia Martineza GINTEA, Rufina
Ibil. 643 872 057 + Ibil. 643 511 057
Mailoak.com | info@mailoak.com



HILKETA DONIBANE LOHIZUNEN

Maiatzaren 3an, Donibane Lohizunen (Lapurdin) gertatutako hilketa sexista "bortitza" salatu zuen Zumaiako Udalak ohar baten bidez. Era berean, hildakoaren familia eta gertukoei elkartasun osoa adieraziz. Ohar horren bidez, udalak argi utzi nahi izan zuen "ez duela giza eskubi-deen urraketarik onartzen, ez Zumaiaren eta ez beste inon ere". Araitz eta Beteluko herritarrek, inplikazioa adierazteko eta hilketa matxista salatzeke, elkarretaraztea egin zuten Arriben. Joan zen astean Lekunberrin ere tratu txarreatatik gizonetako bat atxilotua izan zen, Foruzaintzak argitaratu duen bezala.



MENDIALDEA LAN ORIENTAZIOA

Lana bilatzen ari bazara, inguruko aukerak identifikatzen eta zure gaitasun profesional eta pertsonalak hobetzen laguntzeko, Mendialde Lan Orientazio Zerbitzua jada eskuragai duzu. Parte hartu nahi baduzu, zerbitzua hileko lehenengo eta hirugarren astearteetan egingo da Leitzako Mimukai zentroan, edo Lekunberriko udaletxean. Zure emplegu agentzian izena eman dezakezu, edo nahiago baduzu jarri zaituz kontaktuan:
-orientacion17@fundacion-ilundain.com
-629566992



SOROSLE IKASTAROA LEKUNBERRIN

Uztailaren 1etik azaroaren 2ra garatuko da Lekunberrin Ur Sorosmenaren ikastaroa, lanbide kualifikazioa lortzeko beharrezko prestakuntza. Hauek dira bertan parte-hartzeko beharrezko baldintzak: 16 urte beteta izatea, ordu prestasun osoa, derrigorrezko presentzialtasuna eta igeri egiten jakitea. Izen ematea orrialde honetan:
-www.fnss.es

► Haizea Goñi (Lekunberri)



*Haizeak ekarri nau
ni Lekunberrira
geroztik hemen nabil
gira eta bira
mendia dut gustuko
ta bere distira
denbora pasatzen dut
Mailoak begira*

*Arbizutik joan nintzen
lasaitasun bila
hona etorri eta
a ze marabila
ezagutu nituen
neska - mutil pila
mila esker lagunak
zuei muxu pila*

Doinua: Haizeak bidali du. **Hurrengoa:** Mainer Balda (Lekunberri)

ZUNDAKETAK GELDITZEA, GAKOA

lazko udaberrian, Sakanan, Izan eta Goierrin AHTaren obrendako zundaketa geologikoak egiteko eskaera uholde bat sartu zen zonaldeotako udaletxeetan. Sakanan, osotara 15 zundaketa egiteko eskaera egin zituzten udaletan, Erroztik hasita Olaztiraino. Berri larría izan zen hura, izan ere, STOP AHT zundaketak ekimena osatzen dugun taldeok uste baitugu zundaketak AHTaren obren izateko hasiera direla. Orain arte egindakoa ez da alferrikako lana izan. Zundaketa-lanek urtebeteko atzerapena omen daramate Garraibideen Estatu Idazkariak berriki adierazi duenez. Haren ustez, arazoak dituzte azterketa hauek egin ahal izateko udaletxe zein partikularren aldetik egondako planto irmoa dela eta.

Lur publiko zein partikularretan egin nahi dituzten zundaketa hauekin 27 eta 209 metro arteko sakonera duten lakinak atera nahi dituzte. Gainera, orain arte jasotako informazioen arabera, zenbaitetan, zundaketa hauek modu irregularrean egin izan dituzte, legezko bermerik gabe, bidezko administrazio-prozedurak bete gabe eta kaltetuen bizkar. Herritarron iritzia zundatu ordez, etekina besterik lortu nahi ez duten horiek lurrak, mendiak, bazkalekuak eta erreka-estak zundatzen dituzte, hauek birrintzeko asmoz.

Krisi klimatikoa, ekonomikoa eta soziala gogor jotzen ari den momentu honetan, krisia bera areagotzen eta inolako funtzio sozialik beteko ez duen azpiegitura batean dirua xahutzen ari dira, hots, orain arte 215 milioi euro baino gehiago. Gainera, ezin dugu aiantzi muga teknikoengatik merkantziarik eraman ezingo dituen AHTak funtzionamendurako energia kontsumo handia beharko duela, ohiko trenarena baino askoz

handiagoa, eta honek bestelako makroazpiegiturak ekarriko dituela eskutik nahitaez gure ingurura, energia kontsumo neurrigabe honi aurre egin ahal izateko. Obrek, gainera, ehunka hektareako herri lurrak eta laborantza lurrak galtzea ekarriko dute, CO2 isuriak gora egitea, babestutako eremuak eta biodibertsitatea kaltetzea eta egungo trenbide azpiegiturak hilzorian uztea, jadanik honen guztiaren zantzuak argi ikus daitezkeelarik.

Udazkenean Lakuntza eta Arbizu artean egin genuen bezalaxe, oraingoan Errozt, Izurdiaga eta Urritzola artean dauden lau zundaketa puntuak ezagutzera joateko mendi martxa antolatu dugu, Ekainaren 8rako, gure eskura iritsi den informazioa herritarrekin partekatzeko. Horrez gain, martxan jarri genuen zundaketen aurkako protokoloak indarrean darrai. Zundaketa baten berri izanez gero, lehenik eta behin, herriko Udalarekin kontaktatzea ezinbestekoa da, aholkularitza jaso ahal izateko. Ondoren, AHT Zundaketarik Ez ekimenarekin harremanetan jartzeko deia egiten dugu honako telefono zenbakian: 656711130.

Ez dugu gure etorkizuna Sakanaren errealitatearen inguruan tutik ere ulertzen eta ulertu nahi ez duten enpresari batzuen esku utzi nahi, porlan, harri, legar eta abarrez beterik ikusiko duguna ez buru ez hanka ez duen makroproiektu honekin. Oraindik badugu zundaketak gelditzeko aukera. Orain da momentua indarrak batzeko eta azpiegitura txikitzaile honen aurrean herritarron gaitzespen irmoa adieraztekoa.

Stop AHT Zundaketak

Hurrengo:
Irati Garmendia (Betelu)



Maddi Uharte
(Baraibar)

Zergatik aukeratu dut?

Bidea erraza izanik, ibilbide egokia dela uste dut lagunekin edo familiarekin egiteko. Horrez gain, betidanik ezagutzen dudana bidea da eta interesgarria iruditzen zait jendeak Ata eta inguruko zonalde honen berri izatea. Batez ere, eguraldi eguzkitsuarekin paraje zoragarria da.

maite ditut maite gure bazterrak



Aralarko ibilbidea

Ibilbidea: zirkularra
Distantzia: 12km
Desnibela: 500 m
Zailtasuna: erraza



Bidea:

- 1 Baraibartik San Migelerako bidean, 6.km-an kotxea utzi eta 400m errepidean aurrera jarraituz ezkerrean dagoen bidea hartu behar da.
- 2 Aurrera 2km egin ondoren, eskuinetara dagoen xenda hartu.
- 3 Aldapan gora joan behar da burnigurutzeko pasabidera arte.
- 4 Txabola horren ondotik aurrera jarraituz, kilometro bat egin ondoren, langa bat zeharkatu eta Atan agertuko gara. Behin pistara jaitzita eskuinera jarraitu behar da.
- 5 Ondoren, beste langa bat dago eta hori igarotakoan 100m egindakoan ezkerrean joan behar da. Bertan erreka txiki bat dago eta hori zeharkatutakoan ezkerrean dagoen xendari jarraituko diogu. Hortik aurrera 3km aldapan gora egin behar dira, eta San Migeleko santuregia baino beherago gure bidea errepidean amaituko da.
- 6 Errepidean behera egin behar da kilometro batez, seinale gorri bat dagoen lekuraino. Hortik nahiko bertikala den xendari jarraituko diogu. Nahiz eta oso argiak ez izan, bide honetan marka txuri eta horiak daude. Hemendik aurrera, 500m ingurura, bidegurutzet batean eskuinera hartu behar da. Horrez gain ez dago galtzeko arriskurik.
- 7 Bukatzeko, berriro ere errepidera aterako gara 9.km inguruan. Parean dagoen bideari jarraituz, kilometro batera dagoen pistara heldutakoan, eskuinera hartu eta berriro ere autoa utzitako lekura iritsiko gara.



CONSTRUCCIONES
ERAIKUNTZAK
CONSTRUCCIONES
URANGA/SAIGÓS, S.L.

TEILATUAK
FATXADAK
ERAIKINEN ZAHARBERRITZEA

665 708 683
Lekunberri

ERREABILITAZIOAK
IGELTSERITZA
FATXADAK
TEILATUAK

Construcciones
Gañarbe

Oztegin kalea 2, Lekunberri 616 457 540
construccionesganarbe@gmail.com 636 827 846

NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA
ARLOETAKO HORNIGAIK
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA

URZUBI S.A.

Tel. 948 50 42 41
Fax 948 60 45 20

Lekunberri
urzubi@hotmail.com

TAXI
SOROA
609 168 217
Bederatzi plaza

CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ S.L.
ZURGINTZA OROKORRA
INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI
Telefonoa eta Faxa: 948507343
carpinteria@carpinteriaazpiroz.com

“Gizarteak desagertu egiten dira, baina etxeek, aldiz, tinko jarraitzen dute”

“Lekunberri. Herri baten eta bere etheen historia”: XVI. mendeko dokumentuetan oinarritutako ikerketa sakona egin dute Inma Etxarri eta Belen Balenciagak, Ondare Kultur Taldearekin eta Aitor Pescador Medranorekin, Aranzadi Zientzia Elkarteko filologoa, historialaria eta dokumentalista adituarekin. 31 etxebizitza eta beste hiru desagertuta daudela baieztatu du ikerlanak, bost mende geroago. Lekunberri herriak izan zuen garrantzia azpimarratzen duen lehen ikerketa historikoa da.

Noiz eta nola sortu zenuten proiektu hau?

Inma: Orain dela urte asko, ikusi genuen ez zegoela ezer idatzita Lekunberriko historiari buruz. Egia da ahoz aho historia kontatzen dela, baina zerbait idatzita egotea beharrezkoa zela iruditzen zitzaigun, gero gu ez

gaudenean, hori nonbait idatzita gorde dadin. 1997. urte inguruan, Lekunberriko Udalarekin hitz egin genuen beka bat eskatzea proposatzeko, modu horretan, pertsona bat artxibora joan zedin eta prozesu honi guztiari hasiera bat emateko; izan ere, dokumentazioa lortzeko

hau beharrezkoa zela uste genuen. Nafarroan artxibo bikaina daukagu, eta zorte oso ona dugu horregatik.

Belen: Guk historia ikasi genuen, eta Lekunberriko liburutegian biltzen ginen. Horren ondorioz, 1997an lan hau egiten hasi ginen, baina proiektua garatzeko jarraipena beharrezkoa zen. Gauza asko aurkitu genituen hilabete batean; nabarmena zen proiektu honek zerbait berezia zeukala. Momentu horretan, gaztelua aurkitzea zen garrantzitsuena guretzat. Urteak igaro ondoren ere, bilatzen jarraitu dugu, baina oraingoz ez da azaldu.

“Bekaren hasiera gazteluaren bilaketa izan zen”



Aitor Pescador Medrano
historialaria

Denbora igaro ahala, aurrekontu parte-hartzaileak eskaini zituen udalak, hau da, dirua eskaini zuen proiektu konkretu baterako. Horrekin batera, pentsatu genuen lanean berriro hasiteko momentua zela. Denek denbora geneukan eta gaian sakontzen hasi ginen gure proiektua aurkezteko.

Inma: Geroago, Ondare elkartearen izenean, gure proiektua aurkezteko ideia izan genuen, eta oso ideia ona iruditu zitzaien hasieratik. Guk geroago ikusi genuen beste euskarri bat behar genuela, bakarrik ezin genuen liburu bat idatzi, aditu bat bilatu behar genuen. Ondorioz, Aitor Pescador historialariarekin harremanetan jarri ginen. Bera Erdi Aroko gaietan aditua da, ikertzaile oso ona, Aranzadi zientzia elkartekoa. Harekin hitz egitea erabaki genuen, Lekunberri etorri baitzen gazteluaren bila, udalak proiektu bat garatu baitzuen Aranzadikoek gaztelua bilatu zezaten. Pescador gazteluaren bila hasi zenean, konturatu zen Lekunberriko etxeei buruzko dokumentazio mardoa zegoela, eta gai hau lantzea oso interesgarria iruditu zitzaigun. Aitzakia horrekin, gure proiekturako aztertzailea aurkitu eta gaia zabaltea lortu genuen. Modu horretan, proiektuaren ideia sortu zen: 540 orrialdeko liburua.

Zergatik aukeratu zenuen Lekunberri zuen proiektua aurrera eramateko?

Inma: Gu Lekunberrikoak gara eta etxean lan egiteak abantaila handiak



Lekunberriko alde zaharrean kokatuta daude
Anatxonea eta Juanetenea etxea

“Lekunberriko biztanleek beti izan dugu lursailak, etxeak eta gaztelua ezagutzeko grina”

eskaintzen ditu. Ondare Kultur Taldea sortu zenetik, helburua bertako ondarea zaintzea eta ezagutaraztea da. Proiektu hau oso aukera ona izan zen; izan ere, Ondareren filosofiak zera dio: “Berreskuratzen ditugun lanetan edo edozein egitasmotan auzolana bultzatzea ezinbestekoa da”.

Javier: Azkenean, egia da kanpotik enpresa bat etorri ahal zela lan hau egitera, baina horrek ez du herria errotzen. Aldiz, bertakook egiten badugu lan hori, auzolan horrek beste sustrai bat landatzen du, eta, etorkizunari begira, aurkitu diren datuak biztanleei helaraztea errazagoa izango da. Proiektu honek gure filosofiarekin bat egiten du; azken finean, Ondare beti dago laguntzeko prest. Gainera, Aitor Pescador teknikariak ere izugarritzko lana egin du bere ikuspuntutik, baina auzolana beharrezkoa da.

Belen: Egia esanda, hemengoak izanda, gu askotan etxez etxe joan gara informazioa biltzera eta beso zabalik hartu izan gaituzte. Bertakook espektatibak dauzkate, liburuaren zain daude. Lortu dugun informazio guztia urrea da, alderdi kulturalak argi adieraziko dituen liburu bat da, historia gertatu den moduan kontatuko duena. Hainbat elementu bilduta daude liburuan, izugarritzko materiala eskaintzen du edozein gauza egiteko, eta hori izugarritzko berria da.

Zer rol eta erantzukizun izan zenuen?

Javier: Inma eta Belenek azterketak egin, informazioa bilatu eta aztertu egin zuten. Aitor Pescadorrek, berriz, informazioa jaso eta transkribatu egiten zuen. Hala, liburua oso interesgarria gelditu da. Idazteaz gain, puzzle erraldoi bat osatzea izan da liburu hau sortzea, bertan epailetak daude, ezkontza kontratuak, hainbat txosten, eta hori dena Aitorrek elkarrekin eta lan sakona eginez antolatu du; lan zaila da, korapilatsua.

Inma: Erantzukizuna oso ona, alderdi guztietan atea ireki dizkigute eta gero ere bai. Bi edo hiru hitzaldi egin



Inma Etxarri, Belen Balenciaga eta Javier Irigoien Mitxausenea parean



Lekunberri 1940. urtean.
Argazkia: Inma Etxarri

ditugu eta jendea gogotsu dago, asko gustatzen zaie gaia. Beti oso ongi eta zainduak sentitu gara alde horretatik.

Belen: Ondarek lehenengo momentutik asko lagundu gintuen eta Lekunberriko udalak ere bai. Honekin batera, Larraunen gauza bera egiteko gogoia sortu da; horregatik, haiekin ere harremanetan jarri gara eta esperientzia oso ona izan da.

Ze erronka nagusi izan zenituzten proiektua garatu bitartean?

Belen: Gehienbat geure buruarekin, prozesu luze honetan informazio gehiegi zelako momentu batzuetan, proiektua bi urtez luzatzea zaila izan da. Erronka nagusia, alde batetik, gaztelua bilatzea izan da, eta, beste aldetik, artxiboan azaltzen ziren bi etxe desagertu bilatzea. Etxe horietako batekin, batez ere, denbora mordoa igaro genuen, ezin genuen kokatu. Errota batekin gauza bera gertatu zitzaigun, eta horrelako zailtasun txiki asko izan genituen, baina, batez ere, gazteluaren bilaketa da erronka handiena. Betidanik pentsatu dugu hau Malkorrean zegoela, baina ordu-rako Aranzadik ezetz esan zuen. Hori bai izan zela modu batean hasierara itzultzea. Guk uste dugu lortutako informazioaren arabera, Sasita inguruan kokatzea lortu dugula, baina ez da batera erraza. Hori bigarren zatia izango litzateke; izan ere, arkeologia munduan sartu beharko ginateke hori aztertzeke, eta izugarriko lana izango litzateke. Ez dakigu non egongo diren eraikuntza horien aztarnak, baina pieza horiek lekuren batean egonen

“Turismoak bertako historia eta informazioa eskatzen du”

dira. Toponimia aldetik ere, XVI. mendean honi buruzko euskarazko hitzak azaltzen dira: Torreondoa, Torregiben, Torreburua, etab. Beraz, horrek esan nahi du gaztelua nonbait existitu zela, idatzita dago.

Inma: Familien izen-abizenak bereiztea ere zaila izan da; izenak eta abizenak asko errepikatzen dira, elkarren artean ezkontzen zirelako. Garai horretan ez zegoen errepiderik, eta gehienbat Errazkingoak, Baraibarkoak, Aldazkoak, ondoko herrietako jendea etortzen zen, baina, hala ere, abizenak askotan errepikatzen ziren. Izan ere, hiru edo lau belaunaldi ingurutan izen eta abizen berdinak aurkitu ditugu, eta oso konplikatua izan da.

Familia eta izen guztietan interes berdina izan dugu, ez bakarrik boteretsuetan; etxe guztiak guretzat berdinak dira, denen historia biltzen saiatu gara. Ikusi dugu etxeak garai horretan ere asko saltzen zirela, ematen du “jauntxo” asko zegoela, baina errealitatea beste bat zen, zorrak ugariak ziren. Gerra asko zeudenez, etxe ugari erretzen ziren; izan ere, zona muga alboan egonda urtero armadak dena desegiten zuen, dena hautsi.

Nolakoak ziren Erdi Aroko etxeak? Zer material erabiltzen zen gehien?

Inma: Erdi Aroan, etxeak eliza eta bide inguruan eraikitzen ziren. Ingurune hau Nafarroako Erreina zen garai horretan eta bide bat igarotzen zen hemendik Gipuzkoara. Erdi Aroan egiten ziren etxe horiek egurrezkoak ziren, harria oso garestia zen eta ez ziren existitzen gaur egungo etxeak. Lekunberri herriaren antolaketa pixka bat despistatzen du, ez da oso argia. Ez zegoen horrelako tipologia arkitektonikoa, baina bai kokapena: Lekunberri bi sarrera zeuzkala uste dugu, baina zaila da azaltzeko.

Ohiko tipologiari dagokionez, erdian beti ate bat zegoen, gainean leiho bat eta haren gainean armarraria. Etxea simetrikoki erditik puskatuz gero, etxea berdina zen bi alboetan leihoak txikiagoak ziren. Lekunberri sute handia jasan zuen iraganean eta zaila izan da herria zegoen moduan mantentzea. Hala ere, etxeak lehen txikiagoak ziren, denbora igaro ahala altuagoak bilakatu dira. Aipagarria da, era berean, etxe guztiek ura gertu zeukatela: erreka bat, iturri bat, errota txiki bat, etab. Izan ere, ura beharrezkoa zen edateko, garbitzeko, lan egiteko, animalientzat eta janaria prestatzeko.

Zer eragin izatea espero duzue proiektu honek tokiko turismoan eta ekonomian?

Javier: Uste dugu turistei interesatzen zaiela bertako informazio guztia, arlo guztietan. Baina, agian, hori ez da nahikoa, askotan antzerki bat

behar dute, edo ikustaldi bat, elkarrizketa bat, etxeen erakustaldi bat, eta horrelako ekintza desberdinak. Orain arte genekizkien gauzez gain, bestelako informazio bat eskaini ahal diegu proiektu honi esker. Adibidez, interesgarria izan daiteke

Erdi Aroko feria moldatzea lortu dugun informazioa erabiliz, edo gaiari buruzko ibilbide turistikoak egitea. Hona etortzen den turismo gehiena kulturala da; beraz, gauza asko egin daitezke. Dokumentazio honekin zehaztasun gehiago eskaini dezakegu. Aisialdirako ekintzak egiterakoan ez dira asmakizunak izango, baizik eta informazio errealean oinarritutako historia. Lekunberri etortzen diren turistek hori baloratuko dute seguru, hori bilatzen dutelako.

Nolako elkarreragin izan du zure proiektuak Lekunberriko komunitatearekin?

Belen: Egia esan, hitzaldi bat antolatzen den aldiro jende mordoa elkartzten da, ematen du jendeak ez duela interesik, baina ez da horrela. Jendeak interes handia du, eta oso eskuzabalak izan dira etxeen informazioa eskaintzeko momentuan. Haien historia interesatzen zaie, eta haien sustraiak aztertzea asko eskertzen dute. Jakin-min handia dute bertakoek, haien herria ezagutu nahi dute.

Javier: Dirudi Lekunberri beti izan dela “pasagune bat”. Orain, beste



4. Lekunberri herria 1981. urtean.
Argazkia: Inma Etxarri

“Umeen interesa pizten dela ikusteak asko alaitzen gaitu”

herrialdeetan bezala, ondareari garrantzi handia ematen hasi zaio, eta geroz eta egitasmo gehiago daude honi buruz. Sozialki, pentsatzeko era desberdin bat garatzen ari gara. Orain interes hori piztu da eta ikerketa honek guztiak garena adierazten du.

Gai honekin zerikusia duen beste ekintzaren bat garatu duzue? Horrela bada, zer ekintza?

Inma: Momentuz hitzaldiak eta ikastaroak antolatzen ari gara, Aitor Pescadorrekin. Formakuntza txiki eta berezi bat sortu dugu, 33 pertsona elkartzten dira ostiralero. Lehen aipatu dugun jakin-min horrek sorrarazten du hau guztia. Orain arte Lekunberriko datuak ez ziren

existitzen, baina jada ikastaroetan sartu ahal dira, eta hori zoragarria da. Historiak gutxi erakartzen dituen bizilagunentzat ere hau interesgarria izan daiteke, bertako historia delako eta horrek bertakoen interesa piztu eta ikuspuntua aldatu dezakeelako.

Zeintzuk dira etorkizunerako planak?

Inma: Alde batetik, Larraungo Erdi Aroko etxeak aztertzearen proiektua, eta, beste aldetik, Lekunberri XVIII. mendetik orain arte aztertzea. Izan ere, bertan informazio ugari dago, karlismoari eta musikari buruzkoa adibidez. Gainera, herriaren historia ikasteko gai didaktiko interesgarria da hurrengo belaunaldientzat Lekunberriko eskolan muturra sartzea beste jomuga bat izango litzateke, baina informazioa beharrezkoa da horrelako unitate didaktikoak prestatzeko; oso interesgarria izan daiteke, baina sakondu behar da.



**aseguru
gintza
XXI**

**ASEGURU
AHOLKULARIAK**

*Zure ondarea eta segurtasuna
babesteko modu bakarra
behar bezela aseguratua
egotea da*

▶ aseguruak@aseguruak.eus
▶ 943 65 22 20
▶ Korreo Kalea 7-baxua 20400
Tolosa



**HOSTAL
BETELU**

Eguneko menua,
karta, plater
konbinatuak eta
pizza goxoak

Erreserbak:
948 51 30 26 - 663 97 67 09



Atabal
ahintzoria

Era askotako
ogiak eta gozoak

Etxez etxe
banatuko dugu

Ogia enkargatzeko...
948513151



ZIKLOTUR PLAZAOLA

Maiatzaren 5ean, Bide Berdeen Egunean, Plazaola Partzuergo Turistikoaren 30. urteurrenean, Ziklotur Plazaola aurkeztu zen Lekunberrin, eskualdean zikloturismoa bultzatzeko ekimena. Arkaitz Goikoetxeak Lekunberriko alkateak gidatutako ekitaldiak hainbat bizikleta modalitatearen inguruko interesa adierazi zuen, eta azpiegitura berrien garrantzia nabarmendu ere. Bertan jardunaldi desberdinak egin ziren, horien artean maiatzaren 9an "Islandia ezezaguna bizikletaz" euskarazko hitzaldia Igone Mariezkurrenaren eskutik. Eskualdean zikloturismoaren lehiakortasuna hobetzea da helburu, lankidetzaz sustatuz eta ekitaldiak eragin-lurralde osora hedatuz, Nafarroako Turismo Zuzendaritzaren eta Lekunberriko Udalaren babesarekin, eta Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzarekin.



TEKNOADINEKOEN PROGRAMA

Bakardade ez hautatuari aurre egiteko proiektu pilotu bat garatzen ari dira Irurtzungo, Etxarri Aranatzeko eta Altsasu, Olazti eta Ziordiko Gizarte Zerbitzuetako 3 mankomunitateek. Irurtzungo mankomunitateak Lekunberri, Larraun, Aritz eta Beteluko biztanleria osoa hartzen du, beraz proiektua Teknoadiako Landalab Sakana, deituz gero, Sakanaren parte ez diren herri hauek ere sartuko liriteke. Programa teknologikoak oinarritzko gizarte zerbitzuetatik kudeatzen da eta zaintza komunitarioarekin osatzen edo elikatzen da, hau da, bi lanildoak elkar eraginean daude edo elkar elikatzen dira. Horregatik sistema publiko komunitario dela esaten da. Gai honi buruzko hitzaldian ekainaren 20an egingen da Lekunberriko Gabari Gune Irekian, arratsaldeko 18:00tan.



BETELUKO URETAN

Maiatzaren 8an, LH2 eta LH3ko Beteluko ikasleak, "Beteluko Urak" bisitatzera joan ziren, Marikarmen eta Edurneren eskutik. Harrera ezinhobea egin eta den-dena kontatu zieten. Hasteko, ura nondik hartzen den eta dauden Iturriak erakutsi zizkieten: Dama Iturri, Iturri Santu eta Ur beroa. Ondoren, lantegia barrutik ikusi zuten. Bukatzeko, laborategia eta garai bateko ur botilak ezagutu zituzten. Bertan sorpresa atseginak ere izan zituzten: Ibai Soroa, aizkolaria, mantenimentu lanetan, Aitor Goikoetxea, ikasle batzuen futbol entrenatzailea etab. Oso bisita atsegina izan zela diote.



SENDABELARREN IKASTAROA

Jada sendabelarrei buruzko bi tailer egin dira azken hilabeteetan. Maiatzaren 4an hasi ziren lehenengo ikastaroarekin, Lekunberriko autokarabanen aparkalekutik ekin zioten jakinduriaz betetako ibilbidea osatzeari. Bertan, hainbat landare eta sendabelar aztertu zituzten Silvia Akerreta eta Egoitz Garroren laguntza eta irakaskuntza bikainarekin.

EKONOMIA HITZALDIA

Maiatzaren 27an, Lekunberriko Gabari Gune Irekian, herrietan lan eta bizi ahal izateko, ditugun zerbitzu eta baliabideak identifikatu eta hauek proiektu kolektiboaren bidez nola garatzeari buruzko hitzaldia egin zen Cederna Galur eta Eskualdeko Udalen eskutik, Mimukai programaren barrenean. Mendialdeko Aktibazio Planaren baitan, Nafarroako Gobernuak diruz lagunduta, Mimukai eta Olatukoopeko kideek, beste herri eta eskualdetan garatzen ari diren proiektuak erakutsi, beharrak batera identifikatu, eta aurrera begira elkarrekin ikasi eta lan egiteko harreman sarea sortzearen nahia adierazi zuten. Adibideak ezagutuz, ia martxan diren proiektuak eta oraindik ideia fasean direnak, eta hauei laguntzeko prest diren herritar eta erakundeak sartzeko lehen pausoak azaldu zituzten.



VI LOREEN AZOKA

Maiatzaren 19an egin zen "VI Lore eta Landareen Azoka". Goiz-goizetik, Lekunberriko plaza nagusia postu koloretsuz bete zen, bertan, hainbat lore, landare eta artisauen produktu desberdin zeuden. Ingurukoak zein kanpoko bisitariak erakarrit, beren etxeak eta lorategiak edertzeko asmoz. Ondoren, menestra banaketa egin zen eta eguraldi hotza egin arren, giro aparta osatu zen bertako eta inguruko jendearrekin.



●● Jessy Rivera (Hondiras, Sara Gil (Musikaria) eta Guadalupe Altamirano (Nikaragua)

UEMAk “Egin nirekin ere euskaraz!” kanpaina abiatu du, aurreiritziei aurre egiteko

Gure herriak asko aldatu dira eta ari dira aldatzen oraindik ere, eta bizilagun berriak ditugu. Askok handitu da beste herrialde batzuetatik etorritako familien kopurua, eta bertako bizilagunei harrera adeitsua egitea dagokigu, baita nora etorri diren azaltzea ere. Euskal Herrian euskaraz bizi garela erakustea, eta herrian euskara dela bertako hizkuntza adieraztea.

“Pazientzia eta etengabeko praktika funtsezkoak dira aurrera egiteko”

Bizilagun berriak beren herrialdeak utzi eta etorkizun berri baten bila etorri dira azken hamarkadetan gurera, eta horietako asko eta asko Euskal Herrian bertan jaioak dira. Gure herrietako eskoletan ikasten dutenez, euskaldunak dira. Baina, askotan, udalerrri euskaldunetan ere ez diegu euskaraz hitz egiten; azalaren koloreagatik eta bestelako aurreiritziengatik, gaztelaniaz egiten diegu, ohartu gabe Euskal Herrian jaio direla eta, gu bezala, euskaldunak direla. Badira beste asko, bertan jaio ez arren, euskara ikasi dutenak edo ikasten ari direnak; horiekin ere gaztelaniaz egiten dugu bertakoek gehienetan, eta hizkuntza ikasteko abiatu duten bidean kalte besterik ez diegu egiten. Euskaraz hitz eginda, ikasketa prozesu horretan eta bertako herri-tarrekin harremanak garatzen lagunduko diegu.

Pertsona horiek guztiak gurera erakarri nahi baditugu, haien jatorria eta azalaren kolorea alde batera utzi eta aintzat hartu behar dugu euskarak kolore asko dituela. Izan ere, euskara ukatzen diegunean, bertakoa izatea eta sentitzea ere ukatzen diegu, nahi gabe izan arren. Euskaraz hitz egiten diegunean, herrien eta kulturen arteko zubia sendotzen ari gara, euskararekin.

Egoera horretaz jabetuta, “Egin nirekin ere euskaraz!” kanpaina abiatu

dute UEMAk eta Araizko eta Larraungo udalek, aurreiritziak alde batera utzita, gure herrietan bizi diren haur zein gazte-heldu guztiei lehen hitza euskaraz egin diezaiegun. Euskaldunok izan behar dugu eredu, eta pertsona horiei euskaraz hitz egitea ezinbestekoa da. Izan ere, guk ez badiegu euskaraz egiten, nor egingo die?

Kanpainaren aurkezpena

Hasierako kanpainaren aurkezpena Ibarren egin zen. Bertan izan ziren Anastasia Tsera, Aimar Toma eta Andriy Tsera, Martin Aramendi UEMAk lehendakariarekin, Nagore Zubillaga zinegotziarekin, Eider Amundarain Zaldibiko Lardizabal herri eskolako zuzendariarekin eta Aitor Bengoa Ibarako Uzturpe ikastolako zuzendariarekin batera. Bertan, hainbat parte-hartzaileek beren esperientziak partekatu zituzten, kanpopo itxura dela eta, gaztelaniaz hitz egiteak integrazioan nola eragiten duen azaltzeko. Aimar Tomak, Anastasia Tserak eta Andriy Tserak nabarmendu zuten frustrazioa sentitzen dutela hori gertatzen denean, eta esan zuten euskaldun gisa duten nortasuna ahultzen diela.

Arribeko euskaltegiko ikasleak

Arribeko euskaltegian, hiru emakumek kontatu zuten nolako esperientzia izan duten euskara ikastea eta zer iritzi duten honen guztiaren inguruan. Jessy Rivera (Honduras), Sara Gil (Musikaria) eta Guadalupe Altamirano (Nikaragua) duela urte batzuk iritsi ziren Araitz ibarrera. Susturriak beste herrialdeetan izan arren, bertan errotu nahi dute beren etorkizuna. Argi daukate euskara euskaldunontzat oso garrantzitsua dela, eta Araitz eta Beteluko IKA Euskaltegian hizkuntza ikasteko prozesuan murgildu dira.



Kanpaina aurkezteko agerraldian Ibarren, bertako parte-hartzaileak. Argazkia: 28 kanala

“Batuetan, euskaraz hitz egitearekin nahikoa da. Bertakoek niri euskaraz hitz egiten didatenean, balortua sentitzen naiz”

Guadalupe Altamirano, jatorriz Nikaraguakoa, joan den abenduan iritsi zen Araitzera. Zaintzailea da, Betelun egiten du lan adineko pertsonekin, eta asteburuetan, berriz, Tolosan. Harentzat funtsezkoa da euskara ikastea, batez ere gaztelaniaz hitz egiten ez dutenekin komunikatu ahal izateko: “Euskara bizitzaren funtsezko zati bat da hemen. Hasieran, zaila izan zen bertako bizimodura egokitzea, baina, denborarekin, estimatzen ikasi dut”.

Euskaltegian izan duen esperientzia aberasgarria izan dela dio, nahiz eta zailtasun ugari izan. “Euskara erronka etengabea da, baina egunetik egunera hobetzeko prest nago”, gaineratu du Guadalupek. Komunitatekoekin elkarlanean ibiltzea funtsezkoa dela azaldu du, eta hizkuntzak eguneroko egoeretan praktikatzeko eta hobetzeko aukera ematen diola.

Jessy Rivera, jatorriz Honduraskoa, duela urtebete eta lau hilabete iritsi zen Atallura. Bertan bizitzen jarri aurretik, Donostian bizi izan zen ia hogeituz hamar urtez. Zaintzailea da hura ere, eta lanean euskara ikastearen garrantzia sentitu zuen, horregatik hasi zen eus-

kara ikasten, zaintzen dituen pertsonak hobeto ulertzeko. Jessyren ustez, hizkuntza hau ikastea jakin-minaren eta behar profesionalaren emaitza da. “Garrantzitsua da hitzen esanahia jakitea, lanean eta gizartearen gainontzekoak ongi ulertzeko”, dio. Zailtasunak zailtasun, egindako aurrerape-nak nabaritzen ditu.

Batez ere, ingurukoek bere ikaskuntza prozesuan duten garrantzia azpimarratu du: “Auzokoez eta lankideez asko laguntzen didate, eta euskaltegiko Sonia irakaslearen laguntzarekin oso gustura gaude klasekideok; izan ere, ikasten hastea oso zaila da, baina berak klase entretengarriak egiten ditu”. Hala ere, aurreiritziei ere egin die aurre. “Batuetan, jendeak gaztelaniaz hitz egiten dit. Asmo onez egiten dute, baina ikasten ari naizenez, euskaraz hitz egitea gustatuko litzaidake”, gaineratu du.

Sara Gil erizaina da, 2020ko urrian iritsi zen eskualdera, pandemia batean, naturaz inguratutako leku lasai baten bila. Gaur egun, erizaina da Betelun. Bere klasekideak ez bezala, Sara ez da hain estu sentitzen bertako lasaitasunarekin, estimatu egiten du. “Hemen beti aurpegi eza-gunak ikusten ditut eta hori gustatzen zait”, dio. Azaldu du motibazioa sentitzen duela euskara ikasteko, eta bere asmoa dela besteen elkarriketatik ez etetea eta komunitatean hobeto integratzea.

Sarak asko baloratzen ditu hurbiltasuna eta bizilagunen babesa. “He-



“Egin nirekin ere euskaraz!” kartela

mengo jendea oso atsegina da. Beti laguntzeko prest daude eta horrek ikaskuntza-prozesua eramangarriagoa egiten du". Hala ere, onartzen du jendeak batzuetan ez diola euskaraz egiten, eta egoerei aurre egin behar izan die. "Gero eta seguruago sentitzen naiz euskara ulertzeko unean", amaitu du.

Erronkak eta aurreiritziak gainditzea

Guadaluperen, Jessyren eta Sararen istorioek ohiko errealitate bat islatzen dute, Euskal Herriko biztanle berri askorentzat: aurreiritzien aurkako borroka eta hizkuntzaren bidezko integrazioa. Euskara ez da komunikazio tresna bakarrik, identitate sinboloa eta kultura ere bada. Hala ere, itxuran oinarritutako aurreiritzi horiek integrazio prozesua zaildu dezakete. Guadaluperen arabera, "pazientzia eta etengabeko praktika funtsezkoak dira aurrera egiteko". Norbaitek euskaraz egiten dion bakoitzean, komunitate honen parte sentitzen dela ere adierazi du.

Jessyk inguruko babesaren garrantzia azpimarratzen du. "Batzuetan, euskaraz hitz egitearekin nahikoa da. Bertakoek niri euskaraz hitz egiten didatenean, baloratua sentitzen naiz". Jessyren ustez, integrazioa bi norabideko prozesua da.

Sarak jarraipenaren beharra nabarmentzen du. "Hizkuntza berri bat ikastea zaila da, baina ahaleginarekin eta dedikazioarekin, lor daiteke. "Euskarazko elkarrizketa bakoitza kultura honen parte garela erakusteko aukera bat da". Jarrera positiboa eta ikasteko borondatea funtsezkoak izan dira bere esperientzian.

Hiru ikasle hauentzat, euskaraz hitz egitea ez da oztopo bat, kontrakoa, laguntza dela diote, ikasteko modu zoragarria. Jendeak beraiekin euskaraz hitz egitea asko eskertzen dute. "Dirudien bezala, euskaldunok ez dugu hori barneratua, kanpotik etortzen den jendeak euskaraz ikastea nahi dugu, baina hemengoek, askotan, ez dugu hau praktikan jartzen kanpotarrekin", azpimarratu du Ainhoa Berazak, Araitz, Betelu, Larraun eta Lekunberriko Euskara teknikariak. Euskaraz hitz egitea lagungarria da, baina hitz egiteko modua eta abiadura pertsonaren arabera moldatzea oso garrantzitsua dela uste du Sonia, Arribeko euskara irakaslea.

Lotutako egitasmoak eta proiektuak

"Egin nirekin ere euskaraz!" kanpaina Zaldibian hasi da, HUHEZLren (Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea) eta bertako hainbat eragileren

"Euskarazko elkarrizketa bakoitza kultura honen parte garela erakusteko aukera bat da"

laguntzarekin, euskal udalerrietan kulturartekotasuna sustatzeko proiektu zabalago baten barruan. Horrek, jatorri ezberdinetako pertsonen arteko elkarbizitza aberasgarria sustatu nahi du, euskara ohiko hizkuntza eta integratzaile tresna gisa erabiliz. Proiektuak hainbat ekinbide bultzatu ditu egoiliar berrien artean euskararen erabilera eta inklusioa sustatzeko. Horien artean, sensibilizazio tailerrak, adibidez, biztanle guztiak euskaraz hitz egiteko duen garrantziaz kontzientziazteko, itxura edo jatorria edozein dela ere. Tailerretan jarduerak interaktiboak eta bigarren hizkuntza bezala euskara ikasi duten pertsonen testigantzak izango dira. Hizkuntza Mentoretzako Programak ere egingo dituzte, herrietako hiztun parte-hartzaileak eta irakasle linguistikoak egoiliar berriei batu daitezten. Irakasleek eguneroko egoeretan hizkuntza praktikatzeko laguntzen diete egoiliar berriei, eta laguntza eta orientazioa ematen diete ikaskuntza-prozesuan.

Kultur eta gizarte jarduerak aipagarriak dira, integrazioa errazteko, jarduerak kultural eta sozialak antolatzen dira, egoiliar berriei tokiko komunitatearekin elkarrekin izateko. Jarduera horien artean jaialdiak, kirol ekitaldiak eta hizkuntza nagusia euskara duten bilera komunitarioak daude. Hezkuntza-baliabideak ere garatu dira, euskarazko elkarrizketa-gidak, aplikazio mugikorrek eta online ikastaroak barne. Baliabide horiek hizkuntza gaitasun eta maila desberdinak dituzten pertsonentzat erabilgarriak izateko diseinatu dira.

Inpaktua eta espektatibak

Martin Aramendik, UEMAko lehen-dakariak, azpimarratu zuen kanpainaren helburua dela herritarrek kontzientziaztea. "Aurreiritziengatik gaztelaniaz hitz egitean, euskaldun berri horiek nahi gabe baztertzeko ari gara", adierazi zuen. Kanpainak euskaldunen artean jarrera aldaketa lortzea du helburu, gizarte inklusiboagoa sustatuz, euskara kultura ezberdinen arteko zubi izan dadin. Kanpaina honekin, biztanle guztiak euskararen erabilera sustatzea espero da, eta baita biztanle berriak komunitatean barneratuago eta onartuago sentiaraztea ere. Itxuran eta jatorrian oinarritutako aurreiritziak



Arribeko euskaltegian bilduta

desafiatu eta murriztea da helburua. Oztopo horiek ezabatzean, integrazio-prozesua erraztuko da eta bizikidetzari harmoniatsua sustatuko da. Pertsona gehiago euskaraz hitz egitera animatzean, eguneroko bizitzan hizkuntzaren erabilera indartuko da eta hizkuntza babesten eta hazten lagunduko du horrek. Hori bereziki garrantzitsua da; izan ere, gero eta aniztasun handiagoa dagoen gizarte batean, euskaraz elkar-tasun gisa jokatu dezake.

Ondorioa

"Egin nirekin ere euskaraz!" kanpaina urrats garrantzitsua da, euskal gizar-

te inklusiboa eta plurala bermatzen duena. Aurreiritziak hautsi eta herritar guztiak euskararen erabilera sustatzean, hizkuntza ez ezik, kohezio soziala eta Euskal Herriko kide izatearen zentzua ere indartzen dira. Guadaluperen, Jessyren eta Sararen istorioek euskaraz integrazio prozesuan duen garrantzia nabarmentzen dute, eta laguntza, pazientzia eta esfortzuekin aurreiritziak gainditu eta komunitate inklusiboa eraiki daitekeela pentsarazteko balio dute. Kanpainari buruzko informazio gehiago lortu nahi baduzu, "UEMA Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea" orrialdean dago eskuragai.

Lagunasesoria S.L.
Fiskala
Laborala
Kontabilitatea
Seguruak...

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232
lagunasesoria@terra.es

Bar Ainhoa

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitarakoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak Tostadak mermeladarekin eta bertan eskuz egindako madalenak, errokilak, croissant-ak eta napolitanak.

Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera
Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)
948 504 077 · 639 778 851 · aitziberalf@hotmail.com

Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta
14:30etatik 17:00etara

BACALAO ELKANO S.L.

Industrialdea, 11
31870 Lekunberri - Nafarroa
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792
bacalaoselkano@jet.es
www.bacalaoselkano.com.

Elkarretaratzea Lekunberri

Donibane Lohizuneko hilketa matxista salatzeke elkarretaratzea egin da Lekunberri, elkartasun osoa adieraziz erailitako emakumearen senide, lagun eta gertukoei. Herrialde ugari elkartu dira injustizia honen aurka mobilizatzen, eta hainbat erakunde, elkarte eta herritarrek diote lanean jarraituko dutela, indarkeria matxistatik gabe bizi gaitzen.



Elkarretaratzea Lekunberri
Argazkia: Miren Goikoetxea

Antzerki saioa

Maiatzaren 10ean, "Eukalyptus" antzerki saioa eskaini zuen Jon Ander Urresti gazte sortzaile bermeotarrak. Gabari Gune Irekian egin zen saioa, eta kolorez eta sentipen ugari inguratutako antzezlan ederra izan zen, Geuretik, Sortuak proiektuaren baitan gauzatutako lana. Durangoko Azokako 2022ko Sormen Beka irabazi zuen proiektua da Urrestiren obra, egileak eukaliptoaren zabalkundearen metafora erabiliz periferiako gaia eta zalantza plazan jarri zituen, euren garrantzia politikoa eta urgentzia hausnartzeko asmoz.



Antzerki saioa



Nerea Urbizu "Ur bizitan" liburuaren aurkezpen musikatuan

Liburu-aurkezpen musikatua

Ekainaren 17an Nerea Urbizuk "Ur Bizitan" bere azken lanaren aurkezpen musikatua egin zuen Astizko Aterpean. Haurren bihotzak hainbat emozio desberdinez bete ziren istorioa eta musika entzunez. Arratsalde ederra izan zen.

III Enkante Nazionala

Maiatzaren 12an, igandea, Gorriti kultur eta abeltzaintza jardueraz bete zen Mendialdeko Azoka Ibiltaria eta III Enkante Nazionalarekin. Artisautzarako eta bertako produktueta-rako bultzada izateaz gain, eskualdeko tradizio aberatsen indarra, azpimarragarria izan zen.

Inguruko artisau eta ekoizleak bertan elkartu ziren eta goiz lainotsua izan arren, jende mordoak hurbildu zen.

Ekitaldia ardi Latxa arrazaren erakusketarekin hasi zen, non bisitariak animalia ikoniko hauen edertasuna miretsi ahal izan zuten. Gero, enkanterako txartelak banatu ziren, eta horrek zaleen arreta erakarri zuen. Amaitzeko, enkante ikusgarria egin zen. Dena Gorritiko frontoi barruan eguraldi kaxkarraren ondorioz. Herrialdeko hainbat lekutako abeltzainak parte hartzen hurbildu ziren, bertaratutako arteko adiskidetasun eta lehia giro itzela osatuz. Inguruko produktuekin, tokiko gastronomiarekin eta kultur jarduerekin, ekitaldia gustu eta adin guztietarako aproposa izan zen.



Gorritin garatu zen Mendialdeko FERIA Ibiltaria



Latxa arrazako ahari genomikoak Gorritin ospatu zen III Enkante Nazionalan



Enkanterako txartelak ateratzen



III Enkante Nazionalera hurbildu ziren pertsonak ahari genomikoak ikusten

Albaitaritza
baserriarren zerbitzura

Akaborro Ind., 31860 Iruztzun
www.albaitaritza.com · 948 500 343

TALLERES GOÑI
CHAPA Y PINTURA

- IBILGAILU GUZTIEN TXAPA KONPONKETA ETA MARGOKETA
- BANKADAKO LANAK
- ERROTULAZIOAK
- LLANTA BERRITZEAK
- JASO ETA ETXERA ERAMATEKO ZERBITZUA
- KRISTAL ALDAKETAK
- BARRUKO ETA KANPOKO GARBIKETA
- ADEITASUN AUTOA DOAN

680 859 938 · 948 500 166 · CHAPIGO@GMAIL.COM

Arruizko Erromeria

Maiatzaren 12an ospatu zen San Migel, maiatzeko erromeria. Arruizko eta inguruko herritarrak bertan elkar-tu ziren urtero bezala. Jesus Mari Sotilek meza eskaini zuen eta Pilar Argiñenak akordeoia jo zuen herritarrek kantatzen zuten bitartean. Amabirginari loreak eskaintzea eta meza ondorengo luntxa ez ziren falta izan herrikoei esker, eta Manoli Olaetxearen irrintzia entzuteko zortea ere izan zuten bertaratu ziren lagunek. Eguraldi lainotsua egin zuen, baina giro herrikoa sortu zen bertan, beste behin.



Arruizko Erromerian bertakoak eta ingurukoak.
Argazkia Joxe Mari Zabaleta.

20

Kontzertuak Printzan

Maiatzaren 11n Ziraun eta Sua taldeen kontzertuak egin ziren Printzan. Hainbat lagun gerturatu ziren musikaren erritmoan dantzatzera. Ziraun taldeak rock eta euskal elementu tradizionalak uztartuz, ikusleak liluratu zituen energiakz beteriko emanaldiarekin. Ondoren, Sua taldeak rock soinu indartsuarekin eta euskarazko hizki sakonekin jarraitu zuen gaua, komunitate giroa sortuz. Kultura eta sormenaren indarrez inguratutako gunea da Printza, eta horren esker, larunbat gau hura musikaren oihartzunarekin amaitu zen, bertaratutako guztiak orotzpen iraunkorrekin utziz.



Ziraun taldea Printzan

Kantatu eta musikaz gozatzeko adinduen ikastaroa

Dioten bezala musikaren doinua jarraitzeko eta abesteko adinak ez du axola eta abestea maite duten pertsona adinduentzat ikastaro ederra eskaini du Aralar Udala Musika Eskolak. Aurtengo ikastaroa apirilean hasi eta ekainean amaitu da, baina hilabete honetan, datorren ikasturterako izena eman daiteke. Musika eskolak, Larraun eta Lekunberriko udalei zein Larraun Lekunberriko Eguneko zentroa eta Irurtzongo Gizarte Zerbitzuko arduradunei proiektuaren berri eman zien eta denen artean ikastaroa antolatu zuten. Lekunberri eta Larraungo Udalak dira gastuak bere gain hartzen dituzten erakundeak. Doaneko garraioa ere eskaintzen da nahiz eta oraingoan beharrezkoa ez den izan. Ikastaroa musika eskolako irakaslea den Sergio Estebanek ematen du. Ostegun goizetik bi saio eskaintzen dira. Bat Mitxasenean eta bestea berriz Eguneko Zentroan eta 60 minutuko iraupena dute. Ikastaro honen egitasmoaren helburu nagusiak: Bakardadearen eta isolamenduaren aurka borrokatzea, harreman sozialak bultzatzea, lotura sozialak eta afektiboak sortzea eta indartzea, arlo kognitiboa eta jakin-min intelektuala bultzatzea eta aisialdi aberasgarriak eta dibertigarriak bultzatzea dira. Noski, musika da aitzakia eta aldi berean, helburu horiek lortzeko tresna nagusia. Aurtengo ikastaroa motza izan da, baina asmoa da luzeagoa egitea, edozein modutan, inoiz egin ez den horrelako egitasmoa aurrera atera izana pozgarria dela diote antolatzaileek eta bertako udaletxeak adinduei begira dituzten erronka edota proposamenekin bat egiten duenez egitasmoak, etorkizunean jende artean errotzen joango den aktibitatea dela pentsatzen dute.



Musika ikastaroa Lekunberriko Eguneko Zentroan.
Argazkia: Javier Irigoien



Musika ikastaroa Aralar Musika Eskolan.
Argazkia: Javier Irigoien

Farrufest

Batukada taldeen topaketa ospatu zen Lekunberri maiatzaren 4an. Bertan hainbat ekintza desberdin gauzatu ziren, larunbatean: Sandra Ribeiro-rekin Perkusio Tailerra, bazkaria, Afro Urban dantzak Baobab taldearekin, Lekunberri ingurutik kalejira, afaria, Sambastian eta Mantrah Selektak. Igandean ordea: Timbau Roda Candeal Estilora, Alison eta Charlyren eskutik eta amaitzeko bazkaria. Batukada taldeak kalez-kale ibili ziren herria erritmo ugariz betetzen, ikusgarria izan zela diote bertakoek. Plazaola Kirolgunean elkartu ziren musikariak eta aste bukaera ahaztezina igaro zuten.



Batukada taldeak kaleetan zehar



Batukada taldeak herriko plazan

Aralar Musika Eskola eta Tafallako Musika Eskolaren topaketa


Giro txarra egin arren, musika eta laguntasuna izan ziren nagusi Lekunberri Aralar Musika Eskola eta Tafallako Musika Eskolaren arteko topaketan. Hasi batean Lekunberriko plazan egin behar zen kontzertua, baina eguraldi kaxkarraren ondorioz, Ibarberri Eskola Publikoko patio estalian egin zen ospakizuna, non melodia eta harmonia giro atseginean uztartu ziren. Banda Txiki eta Fanfarrea buru, musikariek euren abilezia erakutsi zuten "kalejira" txiki bat eskainiz, musika kaleetara eramanez eta alaitasuna adieraziz. Pauso arin eta doinu biziarekin, Txiki & Konboak Bandak entzuleak gidatu zituen emozioz beteriko bidaia musikalean. Kontzertua teilatupean egin bazen ere, musikarien pasioak eta talentuak ez zuten mugarik ezagutu. Errepertorio zabalak esperientzia musikalean aberasgarri eta anitza eskaini zieten hurbildu ziren musika maitaleei.



Musikariak Lekunberriko kalejira



Musikariak kalejira, zeharkako txirula jotzen



Musikariak eskolako aterpean instrumentuak jotzen

Sentikortasun handiko garaia

Betidanik izan naiz sentikortasun handikoa, batzuetan gehiegizkoa zela pentsatu izan dut. Ingurua (familia, eskola, lagun arteak) gutxiago sentitzeko eta "hotzagoa" izateko prestatuta zegoela zirudien, sentikortasuna ahulezia bat balitz bezala. Noski, sentikortasuna diodanean sentipen denak sartzen dira, poza, tristura, beldurra... Zenbat aldiz entzun dut "ez zela hainbesterako". Barnean zerbait "puskatua" nuela ere pentsatu izan dut noizbait.

Barne lanketan sakontzearen arabera, oharitzen joan naiz opari bat dela sentikortasun handia, hori bai, behar dudana modu berezian kudeatu behar dudala. Eroso sentitzen ez naizen lekuetan ezin dut egon (kaosarengatik, biolentziagatik...) eta horrek harremanak mugatzen dizkit. Sentikortasun hori garatzeko lan "artistikoak" egitea iruditu zait beti bide egokia. Bestalde, besteentzako agian garrantzia gutxi duten gertaerak (eztabaida bat, tristura bat, pentsamendu bat...) eragin handia dute nigan, eta hor gelditzen naiz egoerari bueltara. Egiten dit bere ekarpena horrek, baita mugatu ere.

Hainbeste ez sentitzeko, "itxi" behar izan naiz askotan. Baina barne lanaren ondorioz eta antzeko jendearekin elkartu izanagatik, berriro irekitzen noa, kudeatzen ikasten, zentzua ematen... Bizitzan "nirago" izaten, eta bizitza "niragoa" sentitzen.

Azken aldian badirudi ohikoa baino jende gehiago gabiltzala sentikor, hauskor ere, garai bereziki aldakorra balitz bezala, barne beldurrak eta minak bere lekua eskatuko balute bezala, egin nahi diguten ekarpena egiteko. Garaia hala izan edo ez, ni behintzat lan honetan nabil eta segituko dut, barne kontu zaharrak garbitzen eta berriak ongi neurtzeko. Antzeko zerbait pasatzen bazaizu, ongi etorria zure partekatzea, horrelako prozesuak partekatuak arinagoak direla ikasten ari naizelako, aurrera ba!






Beti Kozkorreko jokalariek azken partidua irabazi eta gero. Argazkia Juan Antonio Garaikoetxea

Beste urte batez 3. mailan!

Lekunberriko Beti Kozkor taldearen azken partidua etxean izan zen Alesvesen aurka. Bertan, 2-1 irabaztea lortu zuten 3.mailan mantenduko dira aurten ere, joku zirraragarri honen ostean. Partida hasieran Alesves taldea gogotsu hasi zen, baina Beti Kozkor taldeak azkartasunez estutu zituen aurkariak. Lehenengo gola Javier Balda defentsak sartu zuen eta atsedena eta gero, Bingen Beguiristainek bigarrena. Beranduago, Alesves taldeak gol bat sartzea lortu zuen, baina Romeo entrenatzailearen jokalariek defentsa paregabea egin zuten, markagailua mantentzea lortu zuten. Azkenean, ligako sailkapen orokorrean 11. postuan gelditu dira Beti Kozkorreko jokalariek. Azken hilabeteetan gora-behera handiak izan arren, lortutako emaitzei esker maila mantentzea lortu dute.



Erremontari Herri Herri proiektuko erremontistak Arkaitz Goikoetxea Lekunberriko alkatearekin



Sagardoaren Txapelketa 2024

Sagardoaren Txapelketa hemen da

Sei bikote lehiatzen ari dira txapela lortzeko, jokalariek horien artean: Uitziko Xabier Azpirotz, Ibai Martirena eta Lekunberriko Kemen Aldabe. Finala, ekainaren 23an izango da. Astelehen arratsaldean "Erremontari" programaren laugarren edizioaren aurkezpena egin zen, Sagardoaren Txapelketaren barruan. Lehiaketa maiatzaren 2an hasi zen Hernaniko Galarretan. Edizio honetan nabarmentzekoa da partidak ostegunetan jokatu behar direla, eta ez astelehenetan, orain arte ohikoa zen bezala. Bikote

bakoitzak kapitain bat du, aurreko edizioetako entrenatzailearen ordezkoa, eta jokalariek guztiak pultsometroak eramango dituzte. Gainera, jokoen arauak dagokienez, bi aldaketa esanguratsu egon dira: jokalariek mugako denbora dute sarea egiteko (30 segundo) eta, berdinke-tarik izanez gero, hirugarren seta 8 tantora argituko da, 5era beharrean. Aritz Artadill, Iñaki Lekuona, Egoitz Carrion, Igor Arruti, Axier Arteaga eta Patri Espinar izango dira sei bikoteen kapitain, eta, ohi bezala, sagardotegi baten izena eramango dute (Aburuza, Oialume Zar, Gurutzeta, Petritegi, Bereziartua eta Alorrenea). Proiektu honen arrakastak 17 herri berrietara zabaldu du erremon-tea; horien artean, Lekunberri.



Lekunberriko Jaian Jaian partidua jokatu zuten pilotariak. Argazkia: Juan Antonio Garaikoetxea

Herriarteko Pilota Txapelketa

Aurten ere Larraun eta Araitz-Beteluko pilotariak 54. Nafarroako Herriarteko Txapelketan parte hartu dute. Maiatzaren 19an Larraun eta Beteluk, elkarren aurka jokatu zuten, eta Larraunek irabazi zuen. Finala uztailaren 7an izanen da, Iruñeko Labrit pilotalekuan.

100 urte, 100 mendi

Nafarroako Mendi Federazioak 100 urte bete dituzenez, apirilaren 27-28 bitartean 100 mendiren igoera ospatu zen, horien artean Apirilaren 27an, Lizarrusti, Igaratza, Irumugarrieta eta Albiko ibilbidea egin zen gurean. Gailurrean, ekitaldi txiki bat egin zen, txistulariek abesti pare bat jo zituzten. 46 lagun elkartu ziren bertan, 17 km inguruko etapa klasiko izan zen. Krutzetako portura joango ziren mendizaleak autobusez, Jarindo gailurraren panoramikara igotzen hasteko. Ondoren, Arlabaneko portura iritsi ziren, Usakoatxa eta Miritxa ibilbideko hurrengo bi gailurretara, Ulibarri-Ganboa urtegiaren gainetik. Ibilaldiaren amaieran, Santa Marina ermitatik igaro ziren, Marieta herri ederrera iristeko. Ibilbide polita izan zela diote, lainoen artean ibili arren.



Mendizaleak Irumugarrieta gailurrean. Argazkia: Idoia Igoa



1 Apirilaren 27an egin zen mendi igoera. Argazkia: Idoia Igoa

IORTIA CLÍNICA DENTAL HORTZ KLINIKAK

Amets Soroa Guelbenzu · Odontologoa Kol.Zk. 785
Vanessa de Abreu Perdomo · Odontologoa Kol.Zk. 740

Lekunberri: 948 604 804 - 618 818 005
Altsasu: 948 467 603 - 667 66 17 69

ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI

aitz berri

edertasun zentroa

Lako beikoa
Betelu 31890
696 732 290
aitzberri@hotmail.com

- Ile-apaindegia
- Estetika
- Presoterapia
- Podologoa
- Laser-depilazioa eta depilazio elektrikoa
- Dietista-nutrizionista
- Mikropigmentazioa ezpainetan
- Mikroblading bekainetan

tanatorios **IRACHE** Betidanik

ALTSASU - IRURTZUN
LEKUNBERRI - BETELU - LEITZA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

24 ORDUKO TELEFONOA
· 948 19 70 70 ·
www.tanatoriosirache.es

AMARU BAR

ETXKO PIZZAK,
KOPA BEROZIAK

948504352

Antsoñea
BASERRIKO GAZTA

948 513 468
www.antsonea.com
Ustegi (Araitz)

NEKAZARI, S.L.

Kubota
STIHL

Antonio Carraro

Olagain. Mugiro. Nafarroa
Tel.: 948504128
Fax: 948504377
nekazarisl@hotmail.com

Euskal Heriko Mendi Erronka X. edizioa

Aurten aurreikuspen guztiak gainditu ditu Euskal Herriko Mendi Erronkak. Leitzan hasi eta amaitzen den mendi lasterketa honek Mendialdea eta Aralar mendikate ikusgarria zeharkatzen du, baita Arantzazu, Betelu, Larraun eta Lekunberri. Kirol lehiaketa soila baino gehiago, EHME funtsezko balioak sustatzen dituen ekitaldia da, hala nola, ingurune naturalarekiko errespetua, euskararen sustapena eta kirolean emakumeen garrantzia. Lasterketak bi modalitate eskaintzen ditu: EHME traila, 67 kilometroko ibilbidearekin eta 7.200 metroko desnibel positiboarekin, eta EHME erreleboa, ibilbide berari jarraitzen diona baina bikoteka parte hartzeko aukera ematen duena, talde bakoitzean gutxienez emakume batekin. Aurten, EHMEk Irune Sarrionandia Unzueta omentzen du, 1948an Zornotzan jaiotako mendi lasterketen elezaharra. Bere kirol ibilbidean lorpen eta garaipen zerrenda luze batekin, Sarrionandiak mendiko kirolarekiko duen pasioa betidanik argi adierazi du. Aipatzekoa da ere, 650 korrikalari inguru lehiatu direla bertan. Horien artean, Lekunberritik, Larraundik, Arantzatik eta Betelutik, korrikalari askok aktiboki parte hartu dute EHMEren aurreko edizioetan, baita honetan ere. Eskualdeko mendi lasterketa garrantzitsuenetako bat izaten jarraitzen du eta kirolari askok diote ilusioz betetako lasterketa ederra izan dela aurtengoa ere.



Elisabet Bezdicek eta Jaione Mikeo helmugan




Hodei Buldain eta Andoni Ayerdi helmugan




Goiztiarrak taldeko korrikalariek Leitzako irteeran

BAKARKA			
IZEN-ABIZENAK	HERRIA	DENBORA	POSTUA
Gorka Lekunberri	Aldatz	9:05:15	101
Joseba Igartua	Uitzu	9:44:20	158
Ivan Gonzalez	Lekunberri	9:53:18	167
Xabier Igoa	Aldatz	10:13:01	193
Oihan Igoa	Aldatz	10:15:55	199
Orkatz Aldave	Lekunberri	11:01:13	238
Iñigo Gurrea	Lekunberri	11:12:47	250
Ander Balda	Lekunberri	11:45:55	275
Aimar Estanga	Lekunberri	11:47:58	276
Iñigo Garaioa	Lekunberri	11:53:18	286
Hodei Buldain	Lekunberri	12:24:10	308
Andoni Ayerdi	Lekunberri	12:24:13	309

ERRELEBOKA			
IZEN-ABIZENAK	HERRIA	DENBORA	POSTUA
Izar Amundarain / Pablo Serrano	Arribe	8:01:28	11
Lucia Ayestaran / Orgi Soroa	Lekunberri	8:39:17	19
Aitor Etxarri / June Aldaregia	Oderitz/Lekunberri	8:45:56	24
Jaione Mikeo / Asier Mikeo	Lekunberri	9:22:03	32
Alaitz Olano / Patxi Claudio	Betelu/Leitza	9:28:19	33
Elisabet Bezdicek /Luken Kasares	Lekunberri/Leitza	9:46:15	36



Iñigo Garaioa lehiatzen eta Aimar Estanga laguntzen



Orkatz Aldave eta Iñigo Gurrea lasterketan



Lucia Ayestaran lehiatzen.

MOTZ-MOTZEAN

KOLDO NUÑEZ

Aurora Boreala gure zeruetan

Nire amaren ametsetako bat aurora boreala zuzenean ikustea zen. Bete izan zuen gogo handia eta bidaia asko egin bazituen ere, ez zuen amets hau inoiz bete. Nik bai, Kanadan bizi nintzenean hainbatetan ikusi nuen. Bakoitzean desberdina izan zen. Koloreak, irudiak eta mugimenduak aurora bakoitzarenak propio ziren.

Aurten, maiatzak 10 eta 11 arteko gauean ikusi ahal izan nuen ederki aurora Gain tzako gauean. Oraingoan, aurora gorri iluna, odola bezalakoa izan zen. Une batzuetan bioleta aldera jotzen zuen eta goitik behera zetozen zutabe modukoak ikusten ziren. Beranduago, beheko aldean berde-urdina jarri zen. Nik, hunkituta, denbora dexente eman nuen zerua miresten.

Gau iluna zen berez, ilberrikoa, eta zerua garbi egonda, izarrak ikusten ziren. Ume bat sentitzen nintzen. Nire ametsetako bat "Iparraldeko Argiak" Gaintzak ikustea zen. Une horietan, faltan botatzen nuen nire ama. Aurreko igandean amaren eguna izan zen eta egun batzuk beranduago bere amets handi bat bete zen hemen bertan.

Aurora Euskal Herrian bertan ikustea ez da batere ohikoa baina noizean behin gerta daiteke baldintzak betetzen badira, alegia, zeru garbia eta iluna. Maiz atera izan naiz ni gauean etxetik kanpora zerua ikustatzeko eta, zaila iruditzen bazitzaidan ere, aurora ikusi nahi nuen. Bete da ametsa. Nire ama zenak nire begien bidez ikusi izan du aurora.



ALIPROX
Lekunberri
janaridenda
hamabostaldiro eskaintza bereziak

OTXOTORENA
okindegia
ARRIBE
ADIII TLF BERRIA:
948 51 30 32

INFORMATIKA ARALAR
LEKUNBERRI - ARMITZ
LARRAUN
JALMENTIA ETA KORPONTZEA
634 551 743
infoaralar@gmail.com

Errotalde 19,
Lekunberri
MARTIÑO TXIKI
PUNKUJO ESKOLA
www.martilotxiki.com
679 938 016

SOTIL GARAJEA
BETELU
948 513 007
sotilgarajea@gmail.com

ekin
rotulación
948 85 32 79

SAN MIGUEL
Taberna-Jatetxea
Arribe
948 51 31 34

“Kirol honek sorrarazten dizkidan emozioek motibatzen naute lehiatzen jarraitzera”

Guratz Azpiroz, jatorriz Uitzikoa, mendi lasterketetan trebatzen hasia da. Hainbat sari irabazi ditu, eta mendi lasterketarako duen abileziagatik nabarmentzen da.



Guratz Azpiroz Txapelarekin lasterketa egin ondoren.
Argazkia: Guratz Azpiroz

Zerk bultzatu zintuen mendiko lasterketetan parte hartzen hastera, eta zer lotura duzu kirol horrekin?

2022an hasi nintzen mendi lasterketetan. Erronka berri bat behar nuen momentu hartan, eta lehengusuari aipatu nion, bera korrikan ibiltzen baita. Epe motzera zeuden lasterketak begiratzeko hasi ginen eta Berastegiko Negu Trail lasterketa hartu

“Modalitate motzak aukeratzeko ditut, 7-16km artekoak”

genuen helburutzat, 3 hilabetez prestatzen aritu ginen eta... orduan hasi zen dena. Hortxe amaituko zela pentsatzera ere iritsi nintzen, egin dudana lasterketarik gogorra izan baitzen, 16km eta 1100metroko desnibela-

rekin, eta azken metroetan iskiona igotzen hasi zitzaidala sentitzen hasi bainintzen. Baina behin helmugara iritsita, harrotasun sentsazio horrek zaletu egin ninduen, entrenatzen jarraitu nuen, eta... orain arte!

Kirol honekin lotura handirik izan dudarik ez nuke esango. Bueno, ez honekin ezta beste edozeinekin ere. Txikitatik kiroletarako nahiko “faltsua” izan naiz, alfer xamarra. 18 urte nitueanean, Pirinioetara joaten hasi nintzen maiz, mendian ibiltzera. Deskonexio eta askatasun sentsazioa ematen zidan inguru horietan egote hutsak. Eta nik uste, hortik etorri zen lotura hau, ez dakit...

Nolakoak dira zure entrenamenduak mendi lasterketetan lehiatzeko? Zer alderdi dira garrantzitsuenak prestakuntza fisiko eta mentalerako?

Egiten ditudan entrenamenduak oso sinpleak dira, 4-5 egunetan: astean 3 egunez 30-40 minutuz asfaltoan aritzen naiz, desnibelik gabe eta erritmo oso lasaian. Astean behin serieak egiten ditut, erritmo azkarretan. Eta beste egun batean mendian ordu eta erdiz aritzen naiz, erritmo lasaian, baina kasu honetan desnibela sartuz. Entrenamendu hauetan oso malguta naiz; izan ere, negu garaian mendiko eskia egiten dut, eta jendearekin jarduera ezberdinak egiteari ematen diot lehentasuna.

Prestakuntza fisikorako deskantsua, mugikortasuna nahiz indar ariketak eta elikadura oso garrantzitsuak dira esango nuke, nahiz eta ni hankamotz geratzen naizen alderdi gehienetan. Prestakuntza mentalerako, berriz, zugar sinestea oso garrantzitsua iruditzen zait, eta hori egiteko gai zarela errepikatzea zeure buruari behin eta berriz. Eta nola ez, lehiakortasun pixka bat izatea ere bai.

Kontatu al dezakezu mendiko lasterketa batean izandako esperientzia nabarmenen bat? Desafiatu edo bereziki motibatu zaituen uneren bat?

Nire lehen lasterketa nagusiaren aurretik, Zubiriko Sansilvestrailera joan

nintzen, probatzera. Espektatibarik gabe joan nintzen. Hasi eta Hiru Herri taldeko hiru nesken atzetik abiatu nintzen, jakin gabe ze postutan nongoen. Bukatzear geundela, azken metroetan, helmugan zinta jartzen ari zirela ikusi nuen, lehen neska sartzera zihoan seinale. Kontatzen hasi eta laugarren nindoala ohartu nintzen. Honek asko motibatu ninduen, ez bainuen inondik inora espero. Berezi desafiatu nauen lasterketa bat aipatzearren, Canelle aukeratuko nuke, Izabako 13km eta 1000m-ko desnibela duena. Lasterketan zehar postu batzuk aurreratzen joan nintzen eta 4. postuan nindoala esan zidaten. Jaitsiera oso irristakor zegoen, aurreko gauean bota zuen ekaitzarengatik, baina, 3. neska hurbil nuela esan zidatenean, inoiz baino gehiago estutu, ipurdikoren bat hartu eta 3. postua lortu ahal izan nuen. Esan bezala, lehiakortasun puntu hori badut barruan.

Zein dira korrikalari gisa aurre egin behar izan diezun erronkarik handienak, eta nola gainditu dituzu?

Korrikalari gisa hasiberria naiz, eta oraingoz erronkarik handiena burua “hotz” mantentzearena izan da; izan ere, noizean behin sortu daitezkeen “minek” asko eragiten didate psikologikoki. Ez dut lesiorik izan, baina gainkarga bat bai beharbada, eta gustuko dudana egitea galarazi izan dit tarteka. Azkenean neure buruarekin dut erronka handiena halakoa, momentu hauetan egoera erlatibizatzen garaian.

Ba al dago maitasun handiz gogoratzeko lasterketa berezirik, edo mugarriz jotzen duzunik?

Maitasun bereziz nire lehengo lasterketa oroitzen dut, Berastegiko Negu Trail. Batetik, lehengo lasterketa izan zelako, eta, bestetik, lehengusuaren laguntzarekin egin nuelako. Oso berezia izan zen, eta lehengusuarekin harreman estuagoa sortzen hasi nintzen geroztik. Berak prestatu ninduen eta mundu honetan jarraitzeko indarra eman dit, eredu baita niretzako. Kirol hone-



Guratz eta Aimar Azpiroz (bere lehengusua) txapela irabazi ondoren.
Argazkia: Guratz Azpiroz

“Txikitan gurasoekin paseotxoak ematen genituen mendian, baina igandeko bueltatxo txikiak izan ohi ziren”

“Neure burua hobeto eza-gutzeko bidea eman dit, baita neure buruari sinetsarazi dizkidan mugak gainditzeko ere”

“Azkenean, beste edozertan bezala, konstantzia behar da, eta gauzak ateratzen joaten dira”

tan jarraitzeko ilusioa transmititu dit, konstantzia eta diziplina eman dizkit, eta hori gustatzen zait gehien, baita jende berria eta txoko ezberdinak ezagutzeko aukera ere.

Aurreko bi urteetako lasterketa gehienak errepikatzea izan da nire helburua aurten, eta horretan nabil, baina aukera berriak ireki zaizkit. Duela gutxi Federazioetik gonbidapen bat jaso nuen, mendiko eski taldean

sartzeko aukera eskaintzeko. Gauza berriak probatzea gustatzen zait eta aukeren artean, aipatutako mendiko eski taldean sartzeaz gain, Hiru Herri taldeko nesken duatloi taldean sartzeko ideia ere buruan dut bueltaka.

Zerk motibatzen zaitu kirol honetan lehiatzen eta hobetzen jarraitzera? Etorriz zure buruari mugak gainditzeko zaitu helburu espezifikorik?

Kirol honek ematen dizkidan diziplinak, bidaia eta jende berriak motibatzen nau. Jendeak animatzen nau lasterketa luzeagoetan izena ematera, baina oraingoz ez dut hori buruan. Helburu espezifikorik ez, baina gozatzeko jarraitu eta, hurrengo ikasturtera begira, eski taldean sartu eta duatloia probatuko dut.

Zer aholku emango zenioke mendiko lasterketak egiten hasteko interesa duen norbaiti?

Mendira joan eta pixkanaka hastera animatuko nuke, inongo presiorik gabe, naturaz disfrutatzen. Gero ilusioa egingo lizukeen lasterketa bat aukeratu eta helburu hori entrenatzeko motibazio moduan hartuko nuke. Eta hori bai, nire ustez garrantzitsuena, ez itxaron %100ean sentitu arte, momentu perfektu hori normalen ez baita iristen. Bi aldiz pentsatu gabe egingo nuke.

“Betidanik argi izan dut tailerrean lan egin nahi nuela”

Irurtzongo industria inguruan, Goñi Tailerra, txapa eta pintura konponketan erreferentea da. Nafarroako enpresa honek tradizioa eta berrikuntza uztartzen ditu, kalitate handiko emaitza teknikoak eskaintzeko.

Zein da istorioa? Noiz eta nola sortu zenuten lantegia? Zergatik?

Nire aitak 15 urte zituela, Irurtzongo tailer batean hasi zen lanean txapista gisa. 1980ko maitzaren 1ean, 23 urterekin, nire gurasoek garajea alokatu zuten. Ogibidea gustuko zutenez, tailerra hartzeko apustua egin zuten. Urte bereko maitzaren 2an,

konpondutako lehen autoa 1970. urteko Citroen C8 urdin bat izan zen, Iribasko bizilagun batena. Nire amak bulegoko lanak egiten zituen bitartean, aita tailerrean eta garabiarekin ibiltzen zen.

1995. urtean, Irurtzongo industrialdean garaje berria sortu eta hara pasa ziren. Hiru anaia gara eta tailerrean ja-

rraitu duen bakarra ni izan naiz; txikitatik gogoko dut eta egunero autoen artean hazi naiz. 2002an hasi nintzen, gaztea nintzela, eta ogibidea ikasten joan naiz familiarekin. Azken urteetan, lantegia txikia geratu zela ikusi eta buruari bueltak eta bueltak eman ondoren, ilusioz beteta, tailer berri bat sortzea erabaki genuen. 2022an, etxeko lursail batean 1000 metroko tailerra eta beste 1000 metroko patio bat egin genituen. 2023ko apirilaren 15ean zabaldu genituen ateak lehen aldiz; orain urte bat bete dugu han.

“Aurten, beraz, enpresak 44 urte bete ditu, maitzaren 1ean, hain zuzen ere”

Zeintzuk dira eskaintzen dituzuen zerbitzu nagusiak?

Gure zerbitzu nagusienak ibilgailuen txapa konponketa eta margotzea dira. Era guztietako ibilgailuak: autoak, furgonetak, traktoreak, kamioiak, motorrak, etab. Goitik behera konpontzen ditugu kolpeak eta maruskadurak dituzten autoak. Autoen estetika eta karrozeria lanak ere gure espezialitatea dira.

Zer teknologia eta makineria/tresna mota erabiltzen dituzue lanak egiteko?

Teknologikoki azkeneko lan-tresnak eta makinak erabiltzen ditugu: bi kabina, margotzeko; zortzi igogailu; zazpi lurzoru, xurgatzeko (bertan lixatzen da); langile bakoitzak xurgatzeko eta lixatzeko makina bat; igogailu mugikor bat; koloreen espektro makina; margoak egiteko makina; infragorri makina (lehortzeko erabiltzen da); bankada (txasiseko kolpeak zuzentzeko makina); hiru soldadura mota; eta eskuko tresna desberdinak. Lan-tresna berriak erabiltzeko apustu egiten dugu.



Garikoitz Goñi taileraren arduraduna



Autoaren irradurak konpontzen



Goñi tailerreko langileak



Tailerra barrutik



Goñi Tailerrean langileak autoa margotzen

Nola ziurtatzen duzue zerbitzu eta produktuen kalitatea?

Auto guztiak garbitzen ditugu bezeroei eman baino lehen, adeitasun moduan.

Postu desberdinetan langile bakoitzak bere lana egiten du, eta, zerbitzu gehiago eskaintzeko, kortesiazko sei auto ditugu. Modu horretan, bezeroa autoaren konponketaren zain dagoen bitartean, garraio gabe geratu ez dadin. Gainera, behar izanez gero, etxetara joan, konpondu beharreko autoa hartu eta tailerrera eramaten dugu.

Zer ondorio ditu tailerrak inguruko komunitatean? Jarduera desberdinetan parte hartzen duzue?

Eskualdean enplegua sustatzen dugu, inguruko lankideekin, eta jarduera desberdinetan parte hartzen dugu, hala nola, inguruko kirol eta kultura ekitaldietan, ibarreko eta herriko jaietan eta aldizkarietan. Gainera, bileretara joaten gara eta institutuekin eta lanbide-heziketako eskolekin harremanetan gaude, Gipuzkoa eta Nafarroa inguruko ikasleak gure tailerrera etor daitezen praktikak egitera.

Zer neurri hartzen dituzue negozio iraunkorra eta sozialki arduratsua izateko?

“Urezko margoak” (ur-pintura) deitutako margoekin lan egiten dugu, martxan dauden legeak eta baldintzak betetzeko eta birziklatzeko. Izan ere, material bakoitza antolatu eta dagokion tokira eramaten ditugu, hala nola plastikoak, papera, burdinazko piezak, margo soberakinak, etab.

“Kalitateaz arduratzen den pertsona bat dugu, lan guztiak gainbegiratzen dituen”

Ba al dago bereziki zuentzat berezia izan den proiekturik?

Konponketa guztiak bereziak izaten dira. Gurasoek erakutsi dizkidaten gauzen artean, arreta eta jendearen gertutasuna nabarmenduko nituzke, bezeroen esker onak eta poztasunak alaitzen nau gehien.

Zer plan dituzue etorkizunerako?

Gu familia xume eta langilea gara, egunero ikasten dugu zerbait, eta gure eguneroko helburua da bezeroei gure %100 eskaintzea. 11 pertsona gaude lantaldean eta bakoitzak badaki denak garrantzitsuak garela negozioak ongi funtzionatu dezan. Talde bikaina gara, bata bestearekin osatzen garelako kalitatezko zerbitzua eman ahal izateko. Hainbat

“Gaztetatik proiektua aurrera eramatea zoragarria izan da”

proiektu ditugu buruan, baina, due-la gutxi, hirugarren umea eduki dut, eta proiektu berriak aurrerago egin beharko ditugu.

Zerbait gehiago aipatzeko?

Asko eskertzen diegu gure bezero guztiei Goñi Tailerrean konfiantza izatea eta honen parte izatea. Behar izanez gero, hemen gaude, zerbitzua eskaintzeko prest. Mila esker.

gArai(t)z zerbitzuak urtebete

Araitz bailaratik irten edo bertara iristeko autoa partekatzeke «gArai(t)z» izeneko whatsapp bidezko zerbitzu herritarrak urte bat bete du. Dagoeneko 153 erabiltzaile dira kanal honetan izena eman eta zerbitzua eskatu zein eskaintzeko aukera dutenak. Urte honetan zehar ehundaka izan dira zerbitzu honi esker egindako desplazamenduak, gehienak Tolosa eta bailara lotzen dituenak, baina baita Lekunberri, Iruñea eta Donostia ere. Mugikortasun zerbitzuaz gain duen bertuteetako bat da belau-naldien arteko harremanak sustatzea. Zuk ere izena eman nahi baduzu zoaz hurrengo QR helbidera.



2024ko Beteluko festak

2024ko Beteluko festak

Ekainak 26, asteazkena

19:00 Txupinazoa
Ondoren, Beteluar berriei ongi etorria
19:30 Gizonezkoen frontenis finala
21:30 Herri afaria
Ondoren, sorginkeriaren jolasaren aurkezpena
0:30 Bide Batez erromeria
4:00 Baratxuri zopa eta jokuak

Ekainak 27, osteguna. Umeen eguna

11:15 Umeen txupinazoa LH6ko ikasleen eskutik
Jarraian ume jokuak
12:30 Pin pon txapelketa
Puzgarriak egun guztian zehar plazan
17:30 Iruñako erraldoiak. Plazatik hasita herritik zehar
17:45 Mus txapelketa
19:00 Bailarako umeak dantzan
20:30 Ardo txuri dastaketa musikatua
Ondoren, pizza razioak banatuko dira txoznan
23:30 Bizphiru taldearekin dantzaldia
1:30 Dj Izzei

Ekainak 28, ostirala

10:30 Umeen pelota partidak
12:00 Helduen pelota finala
14:00 Jubilatuen bazkaria elkartean, Juan Joxe Estanga trikitaliarekin
18:00 IV. San Donatoko kronoigoera
19:00 Tortilla patata lehiaketa
20:00 Trikiteens taldea

21:30 Zezen suzkoa
0:30 Trikiteens taldearen emanaldia
Jarraian DJ Milan & Rivera
7:00 Gaupaseroen argazkia

Ekainak 29, larunbata, San Pedro eguna

Denok txuriz jantzita!
7:00 Auroroak
8:00 Diana
12:00 Meza Nagusia
Ondoren gazta zaharra
14:00 Paellada herri bazkaria
Ondoren boletoen zozketa eta bingo azkarra
18:00 Anaïen arteko herri apostua
19:00 Ingurutxoak
19:15 Elektrotxufla elektrotzaranga
22:00 Ogitartekoak txoznan
0:30 Gabezin erromeria
Ondoren DJ Antxon Saez goizalderarte

Ekainak 30, igandea

12:30 Meza Nagusia
Ondoren, ardoa eta gazta banatuko dira
13:00 Emakumezkoen frontenis finala
17:30 Atxur eta zartagin jaurtiketa
19:00 Tapia eta Leturia Band kontzertuan
Ondoren sari banaketa eta sorginkeriaren jolasaren amaiera
21:00 Herri afaria + sorpresa
Bukatzeke, traka finala!

AGENDA

EKAINA

- 7 - Erremonte Jaialdia. Jaian Jai Frontoia, 18:00etan.
- 8 - Ibarberriko Ikas Komunitatearen Festa. Ibarberri Eskola (Lekunberri).
- 9 - Mailoperen aldeko kontzertuak "Jon, Jaione eta seme alabak". Beteluko eliza, 18:00.
- 10 - Aralar Musika Eskolaren ikasturte amaierako kontzertua. Lekunberriko Plaza (euria bada, Ibarberri Eskolan), 19:00.
- 11 - Emakumeentzako Defentsa Pertsonala. Plazaola Kirolgunea (Lekunberri), 17:30.
- 18 - Emakumeentzako Defentsa Pertsonala. Araitzko Udaletxea (Arribe), 17:30.
- 15 - **Larraungo Eguna 2024. Baraibar.** Goiezea txistulariak herrietatik. 9:00 Tuturrerekin mendi ibilaldia: Baraibar, Iribas, Alli, Astiz, Baraibar. 10:30 Pilota partidak. 11:30 Tirikitraukiren dantza emanaldia. 12:30 Musika Eskolako animazioa. 13:30 Larraungo Egunekeo ingurutxoak 14:00 Herri bazkaria bertsolariekin. Garazi Navarro eta Julio soto. *Txartelak Mitxausean eta AEK-n eskuragarri ekainak 10 arte. 16:30 Umeentzat eskulanak. 17:30 Zirika Zirkus. 17:30 Gazte + helduentzako bingo musikatua. 19:00 Trikiteens. 22:00 DJ Iñigo Etxenike.
- 18- 19 Martillo txiki, Ikasturte bukaerako kontzertuak. Gabari Gune Irekia, 17:00.
- 20 - Teknoadineko programari buruzko hitzaldia. Gabari Gune Irekia, 18:00.
- 22 - Printza 5. Urteurrena. Printza (Lekunberri). 12:00 Iago Magoa. 14:00 Bertso bazkaria: Aroa Arrizubieta eta Amets Arzallus. 23:00 Kontzertuak: Ibil Bedi eta J Martina, ondoren Dj 2hotz. *Bazkaria (10€) eta kontzertuetako (10€) txartelak: Kotxera Amairu eta Pikuxar tabernetan ekainaren 20ra arte.

22-24- Lekunberriko sanjoanak 2024 (Lekunberriko festa txikiak):

Ekainak 22: 17:00 Garagardo Azokaren hasiera. Herriko Enparantza. 18:00 Kontzertua: Eclectic Celtic Band. Herriko Enparantza. 22:00 Garagardo Azokaren amaiera.

Ekainak 23: 11:30 Erraldoi eta Kilikien Konpartsa. Alde Zaharra. 11:30 Ongi etorria 2023an erroldatutako bizilagun berriei. 12:00 Kultur aniztasun topaldia. Herriko Enparantzan. 17:00 Pilota partidak: pala eta eskupilota. Jaian Jai Frontoia. 20:00 Martillotxiki Batukadaren kalez kalea. Aralar Kaletik Alde Zaharrera. 20:30 San Juan Bezperako Suak. Alde Zaharra.

Ekainak 24: 09:30 Goizeko soinua Txistularien taldearekin. 11:00 Meza Nagusia. San Juan Bataiatzailearen Eliza. 14:00 Jubilatuen bazkaria. Hotel Ayestaran. 14:30 Herri Bazkaria. Herriko Enparantza. 17:00 Haurrentzako jolasak. Herriko Enparantza.

24-28- Udalekuak Natura eta Zaldiak. Perunea Baserrria (Intza).

24- 26, 27, 28, 29, 30 - Beteluko San Pedro Jaiak 2023.

MERKATU TXIKIA

LAN ESKAINTZA-Produkzio-langilea LHrekin bilatzen ari dira Lekunberri kokatutako enpresa batean. Izena emateko, Lekunberriko webguneko eskaintzaren estekan sartu.

PUBLIZITATEA MAILOPEN
Labrit Multimedia
948 210 103
mailope@labrit.net

Deabrua
adintsu,
horregatik
jakintsu



...EDO EZ?

**HARPIDETU ZURE HERRIKO
ALDIZKARIAN eta jaso
liburu-sorta bat doan**

* Harpidetzen diren lehen 10 lagunek hiru liburu
doan dituen sorta bat jasoko dute.

Gobierno
de Navarra  Nafarroako
Gobernua


Asociación de la
Prensa Local de Navarra
Nafarroako Tokiko
Prentsaren Elkartea